

POP ROCK SAKANA 1. LEHIAKETAREN OINARRIAK

2017

OINARRIAK

Lehiaketa honen helburua Sakanako pop/rock motako musika taldeak eta euren abestien sustapena eta hedapena da.

1. PARTAIDEAK

Lehiaketan Sakanako taldeek edota jatorri sakandarra duten partaideen kopuruak taldearen %80 gainditzen duten taldeek parte hartu ahal izanen dute. Aipatu musika taldeek ezin izanen dute diskoetxeren batekin indarrean dagoen kontraturik izan. Autofinantzatutako lan diskografikoak dituzten musika taldeak ez dira kanpo geldituko. Talde bakoitza izen baten pean bakarrik aurkeztu daiteke, nahiz eta taldekideak, maila pertsonalean, beste talderen baten partaide izan daitezkeen.

2. IZEN EMATEAK

Lehiaketan izen ematea oinarri hauen aurkezpenarekin batera irekitzen da eta **2017ko otsailaren 28an, 13:00etan** bukatzen da.

Izen ematea Lakuntzako Udalaren www.lakuntza.eus web orrialdearen bitartez egin daiteke edota Lakuntzako Udalaren bulegoetan astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Herriko Plaza 1, 31830 Lakuntza, Nafarroa.

Partaideek lehiaketara aurkezten duten errepertorioa, taldekideen datuak eta izen ematea egiten duen pertsonaren datuak biltzen dituen inprimakia beteko dute. Izen ematea baliozkoa izan dadin, **derrigorrezkoa da inprimakien atal guztiak betetzea.**

3. KANPORAKETA FASEA

Egun bakoitzean bi edo hiru taldez osatutako emanaldiak egonen dira. Talde bakoitzaren emanaldiak gutxienez 15 minutu eta gehienez 25 minutu iraungo du, iraupen hau gainditzen bada emanaldia eten egingen da.

Emanaldiak antolakuntzak finkatuko ditu.

Aipatu emanaldiak 2017ko apirila eta maiatza bitartean burutuko dira arratsaldeko 19:30etatik aurrera, ateak 19:00etan irekiko direlarik.

Emanaldi guztiak Lakuntzako Kultur Etxean izanen dira.

Sarreraren prezioa 2 eurokoa izanen da eta irabazia sarietarako bideratuko da.

Ikusleek soilik, Sari Berezia bozkatzeko eskubidea izanen dute.

Ikuslegoaren bozkak epai mahaiko kide bat bezala balioko du.

Ikusleen bozkak osotara, epai mahikide baten balioa izanen du.

Epaimahaia antolakuntzak izendatuko du.

Bukaerako fasera igaroko diren hiru talde aukeratuko dira.

4. FINALA

Finalera igarotzen diren hiru taldeek, antolakuntzak programatuko duen kontzertu batean, zuzenean, joko dute. Emanaldi bakoitzaren iraupena gutxienez 15 minutukoa eta gehienez 25ekoa izanen da, iraupen hau gainditzen bada emanaldia eten egingen da.

Azkeneko emanaldia Lakuntzako kultur etxean izanen da.

Sarreraren prezioa 2 eurokoa izanen da eta irabazia sarietarako bideratuko da bere osotasunean.

Ikusleek, sarrerarekin batera, bozkatzeko eskubidea izanen dute.

Ikuslegoaren bozkak epaimahaiko kide bat bezala balioko du.

Bukaerako fase honetatik lehenengo, bigarren eta hirugarren sariak aterako dira.

5. SARIAK

Sarien lagatzerik ezin da eman.

5.1. LEHIAKETAREN IRABAZLEA – LEHEN SAILKATUA

40 orduko grabaketa musika estudioan disko bat grabatzeko.

Antolakuntzak grabaketa egingen den musika estudioa hautatuko du.

Master kopia edota nahasketa, taldearen kontura beste musika estudio batean masterizatzeko, emanen da.

5.2. BIGARREN SAILKATUA

Abesti baten produkzioa eta grabaketa burutzeko jardunaldi bat musika estudio batean ekoizle profesional batekin (8 ordu).

Antolakuntzak grabaketa egingen den musika estudioa hautatuko du, baita ekoizlea ere.

5.3. SARI BEREZIA

HATORTXU Rock 20ean kontzertu bat ematea.

Emanaldiaren baldintzak, tokia eta ordua, HATORTXU Rock 20aren antolakuntzak erabakiko ditu.

6. Talde irabazlearen desegite edota bere taldekideen funtsezko aldaketa baten aurrean, saria bigarren sailkatuari emanen zaio, eta horrela hurrenez hurren. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko plagiorik, aurkeztutako abestien letra zein musikaren gaineko egile – eskubiderik, ezta Legearen beste edozein urraketa ere eta bertsioen kasuan epaimahaiaren balorazioa baxuagoa izanen da.

7. Musika talde bakoitzak, gutxienez, bere ekoizpeneko 4 abesti aurkeztu beharko ditu, emanaldiaren gainontzeko denbora bertsioekin osatu ahal izanen duelarik. Bertsioek balorazio baxuagoa izanen dute epaimahaiaren aldetik.

8. Lehiaketaren irudiaren kalterako izan daitekeen jarrera azaltzen duen musika taldea zein taldekidea kanporatzeko eskubidea izanen du antolakuntzak, baita musika taldea ezohiko edota legez kanpoko modu batez bozkak lortzen ari delaren susmoaren aurrean ere.
9. Antolakuntzak kontzertuetarako honako baliabideak jartzen ditu musika taldeen eskura: soinu eta argi teknikaria, P.A ekipoa, monitoreak, baxu anplifikadorea, eta bateria oso bat taldeak jo ahal izateko, danborra, txindata eta pedala ekartzeko aukerarekin. Emanaldi pertsonalago bat eskaini nahi bada, musika talde bakoitzak bere musika tresnak ekarri beharko ditu.
10. Parte hartzen duten musika taldeek onartu eta egile eskubideak kobratzeari uko egiten diote. SGARI ordainketa eta honen kudeaketa, beharrezkoa izanez gero, musika talde bakoitzak bere gain hartuko du. Antolakuntzak ez du ardura hau bere gain hartuko.
11. **Abesti guztiak, egile(ak) eta konpositoreen onarpena eta baimenaren egiaztapen dokumentuekin batera aurkeztuko dira. Egile edota egileen aldetik salaketaren bat egonez gero, taldea bera arduradun bakarra izanen da, edozein erreklamazioak edota Lakuntzako Udalaren edozein defentsa motak ekar lezakeen kostuaren %100a bere gain hartuko duenarik.**
12. Parte hartzen duten musika taldeek, euren irudi eskubideak eta baimena ematen dute abestiak edota kontzertuak komunikabide desberdinetan zabaltzeko, beti ere lehiaketaren garapenaren barruan eta inoiz ez antolaketaren aldetik erabilera komertziala emanez.
13. Lehiaketa honetan parte hartzeak, musika talde parte hartzaile guztien aldetik oinarrien onarpena dakar, baita antolaketa batzordearen eta epaimahaiaren erabakien onarpena, hauen kontrako erreklamazio guztiei uko eginez. Parte hartzeak, aldi berean, ekitaldiaren ezaugarriak, bere egitura eta antolaketaren onarpena dakar ere.

Antolakuntzak eskubide guztiak erreserbatzen ditu

Antolatzaileak eta babesleak:

LAKUNTZAKO UDALA
LA BANDA DEL JEFE BIGUN
HATORTXU ROCK